



Alderdi abertzale eta sozialdemokrata bat aipatzen da, baina kritiko guztiak ez dira horietakoak.

egotean, herrialdeko ejekutibaren kontrola lortu ezina zuten, eta hori gutxi balitz, ofizialistak biltzeko Abendaño batzoki berria eraikitzen ikustearen humiliazioa irentsi behar izan dute.

Baina probintziako bigarren herri nagusi den Laudion aspalditik ari zen lanean beste kritiko sail bat, beren aldikari propio bat ere martxan zeukatela. Herri honek badu bere garrantzia, zeren eta Araba den neurrian baino ia gehiagotan baita Bizkaia ere. Bizkaian askoz difuminatuagoak ageri dira kritikoak, eta «Ikatz-Bizi» aldizkaria argitaratzen duen taldearentzako bezala beste hainbatentzako, Laudiotarren lana benetan da inportantea.

Gipuzkoarrak aukera egokiaren zain

Gipuzkoan gerta daitezke aldaketarik nabarmenenak. Markel Izagirrek tinko dirau polemika guztien erdian, baina bere politika ongi jostea konplikatuagoa dauka. Batetik Gipuzkoako jelki-

deen gehiengoa mantendu eta bloke bezala kudeatzea, eta horrekin batera alderdiaren jabe den aparatoarekiko borrokan jarraitzea.

Joko konplikatu, eta hasiera batean Garaikoetxearen alde agertu zirenen guztientzako ez da beste herrialde batzuetakoentzako bezain ebidentea hausketan parte hartu behar dutenik. Bizkaian Marcos Vizcaya eta Sabin Zubiri bezalako jendea kontuz baldin badabil, Gipuzkoan aspaldi honetan ez dira entzuten Donostiako alkate Labaien edo diputatu nagusia den Imanol Muruaren eritziak inondik. Batzuen ustez prudentzia kontua baldin bada, kritikoek jarreretatik apartatuak direla uste dutenak ere badira.

Gipuzkoako ofizialistak ere ez daude geldirik, bestalde, eta batzuek —Bergarako alkate Bolinaga, kasu baterako— polemikan gero eta gehiago ari dira azaldu nahian. Deba bailaran indartsu dira ofizialistak, eta hori gutxi bazen Leizaolari omenaldia antolatuz berek ere gainerako alderdikideak konpromisotan jarri nahi dituzte.

Arzalluzekin batera, beste maila batean baina militante askorengan eragin handia duen maila sentimentalean batez ere, ofizialisten historiaren eta abertzaletasunaren abal eta garantzia da Leizaola. Ikusiko da nor doan eta nor ez doan omenaldi horretara, nor den hor istiluak sortzeko gauza eta horien errentak noren eskuetara joanen diren.

LTHren defentsatik autodeterminaziora

Gipuzkoarrek behin eta berriro eman dute aditzera Arabako espulsatuen biga ontzat ematen dutela eta lastek

PNVren hegemonia zalantzan, Komunitate Autonomoaren gobernabilitatea aidean ikusten da udazken honetarako.

aurkituko dutela elkar, norbaitek Markel Izagirre buru duen ejekutibaren epeltzearen beldurrik baldin bazuen. Baina hori bezain egia da kritiko gipuzkoarren izakera eta estiloa ez dela arbarrenaren berdina.

Askotan Garaikoetxeari erantsi zaion nazionalismo sozialdemokrataren eske metan sartzen direla dirudi arabarrak, eta gipuzkoarren konposaketa, aldiz, nahasiagoa da. Gipuzkoarren artean «Bultzagilleak» talde ultra-kontserbadoreak pizu handia du, eta egia bada hauek ere «askapen nazional eta soziala» aldarrikatzen dutela, askoz nekeago sartu daitezke «independentzia» eta «progresista» hitzek mugatzen dituzten eskemetan, are gutxiago hainbeste borrokatu duten «autodeterminazioa» kontzeptuaren alde.

Nabarmena da, ildo horretatik, «Bultzagilleak» taldeko buru ezagunenetakoa den J.L. Iriartek idatzi duena, Arzalluzek ETaren eta Madrilgo gobernuaren arteko kontakto baten mezulari papera egitearen inguruan. Betidanik Andoni Iralaren jarraitzaileek defendatu duten eskematik (ETaren eta Ezker Abertzalearen interesa ez da aldarrikatzen duten Independentzia, Iraultza Sozialistaren alde hori erabiltzea baizik, eta negoziaketa ETak horretarako erabili nahi duen beste arma bat da, negoziaketa planteamendutan saiatzea horri joko egitea besterik ez delarik), negoziaketa politikoa arbuia du.

PNVn denek telefonoen kontroletara ohituak dirudite

Nola ezkontzen da hori abertzaleago, radikalago eta independentista agertu nahi duten beste kritikoek jokabidearekin? Independentziaren aipatzea bera nola lotu daiteke hitz hori betidanik «burujabetza» rekin eta foruen erreibindikazioarekin kontrajarri duen jendearekin?